

Aktore ziren haiek



Eneko Olasagasti
ZINEMAGILEA
@EnekoOlasagasti

Zer dira aktoreak besteen larruan sartzen diren pertsonak izateaz gain? Askorentzat luxu eta famaren Olinpoan bizi diren izakiak dira. Izaki eta ez gizaki. Horrexegatik zinemaldian euskarazko pelikularen bat erakusten denean euskal aktoreak alfonbra gorria zapaltzen ikusi nahi ditugu, dotore, egoerak nonbait hala eskatzen duelako, eta irribarretsu, berau zanpatzeak derrigorrezko zoriontasuna omen dakarrelako. Urrun, goian imajinatzen ditugu, eta ez direla beraiek pentsatzen dugu supermerkatuko ordain ilaran ikusten ditugunean, jite triste eta ilunarekin kreditu txartelean geratuko zaion saldoa zenbatekoa izango den kalkulatzeko ahaleginean.

Duela egun batzuk Euskadi Irratiko *Amarau-na* saioan nintzen aktoreen lan ezaz hitz egiteko. Aitzakia AISGEk (Artista Interpretariak, Gestio Elkarte), aktoreen eskubideak defendatzen dituen elkarteak, argitara emandako inkesta baten datu lazgarriak. Inkesta horren arabera hirutik bik ez dauka lanik. Zerbakiak. Euskal Aktoreen Batasunean (EAB) 400dik gora aktore daude, horrek esan nahi du 250etik gora aktorek ez duela lanik. Zerbaki potoloak.

Zein babes ederra diren zerbakiak izen eta abizena duten hezur-haragizko historiak ezkutatzeke. Izen eta abizen zehatzak. Besteak beste, ETBko *Goenkale* eta beste telesailetatik

pasatako dozenaka aktoreenak. Non ote daude orain? Agian supermerkatuko ordain ilaran ezagun egiten zaizun aurpegia, eta ez dakizu zergatik, horietako bat da. Eta, gainera, zerbaki horietan beren burua oraindik aktoretzat dute-nak daude. Zenbat ez ote den bide bazterrean aspaldi geratu?

Orain dela ez asko, ez dut uste orduan hau idazteko ausardia izango nuenik, bi-hiru urte oso txar pasa nituen. Lanik ez eta zintzurreraino zorpetuta, kalean jendearekin topo egitean, eta ohituraren kontra, “zer moduz zaude?” galderari “oso gaizki” erantzuten nuen. Harridura eta deserosotasuna marrazten ziren bestearen aurpegiak. “Baina zu... ez da posible”. Olinpon, ETBn ez esateagatik, biziko nintzela usteko zuen ziurrenik. “Ez, ez da posible zuk lanik ez edukitzea”, segitzen zuen. Eta nik, “ba, bai, posible da eta gainera, 50 urtetik gora izanik, berandu da beste edozertan hasteko”.

“Egia da, bai”, erantzuten zuten, “gainera zuen arloan gogorragoa izan da”. Elkarrizketa haiei bukaera ematea artikulu hau idaztea bezain zaila izaten zen.

Bueno, gaur ez daukat lanik eta ez dakit zer egin... Kreditu txartela esku dardaratiz hartu dut eta supermerkatu noa.

Ikusten banauzu egidazu kasu. Ilusioa egiten du. ■

Bijî!



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Erdoğan Turkiako presidentea 370 elkarte feministatik gora itxi ditu. Kurdu herriaren alde ari diren HDP alderdi politikoko kideak espetxeratu ditu azken hiletan. Ilegalizazioak, espetxeratzeak, zentsura... Ez da giro ez Turkian, ez Kurdistanen. Albiste gogorrak heltzen zaizkigu, heltzen zaizkigunean. Nahi baino gutxiago dakigu eta nahi baino gutxiagotan azaltzen diogu Turkiako gobernu faxistari gure aurkakotasuna.

Kezkagarria da, azken urtean hainbeste miretsi dugun herri kurdua jasaten ari den zapalketaren aurrean daukagun mobilizatzeko kapazitate eza. Armak hartuta, borrokan zeuden PKK-ko kideak

sareetan etengabea goraipatu ondoren, ez gara egungo egoeran sufritzen eta erreprimitzen ari direnen ondoan egoteko kapazak.

Kezkagarria da ere, errefuxiatuak Greziatik erauzi eta Turkiara eramateko akordioak sinatu dituzten gobernu horiek guztiak duten epeltasuna. Oinarrizko eskubideak etengabea zapaltzen dituen gobernu batek, nolako harrera egingo die antzeko egoeratik ihes egin duten pertsona horiei guztiak? Ba al dakigu nolakoak diren kontzentrazio-esparruetan bildu dituzten errefuxiatu horiek guztiak? Ardura gurea ere bada, zurea eta nirea. Prest al gaude zerbait egiteko? ■